



San Ignacio Ikastetxea

JESUITAK DONOSTIA EREDUA

2 urtetik 18 urtera arte

Askotariko ikasleak,
neurrira egindako
hezkuntza

ikastetxea@donostiajesuitak.org
www.donostiajesuitak.org



**Denok ditugu
berdingabe
egiten gaituzten
talentuak.**

**Denak
desberdinak,
denak
ezinbestekoak.**



Jakingo al zenuke zurea identifikatzen?

Egungo hezkuntza ereduak badu erronka handi bat.

Pertsona oro iristen gara mundu honetara **paregabe egiten gaituzten talentu eta gaitasunekin**. Denak anitzak, desberdinak. Denak apartak. Batzuetan ordea, zaila egiten zaigu identifikatzea. Zein eragin du ikasteko moduak honetan?

Mundua askotarikoen leku den bezala, **gure ikasleak ere askotarikoak dira**. Denak anitzak, desberdinak, denak apartak. Horregatik, Jesuitak Donostian gure ikasleei euren **talentua bilatzen, identifikatzen eta indartzen** lagundu nahi diegu. **Ikasketa ibilbide pertsonalizatu bat eskaini, gure onena emanez, ikasle bakoitzaren bertsiorik onena garatzeko.**

Gaur badakigu **ikasketa pertsonalizatua posible dela** eta hori bermatzeko **neurritan egindako ikasketa eredu bat** diseinatu dugu. Ezagutu nahi al duzu?

Sartu gure aniztasunaren ekosisteman. Ongi etorri Jesuitak Donostiara.



Neurrira egindako hezkuntza eredua. Jesuitak Donostia Eredua.

Ba al dago pertsonen
talentuak garatu eta
balioetan oinarritutako
hezkuntza baino
konbinazio hobeagorik
gure ikasleak munduaren
eraldaketarekin
inplikatzeko?

Pertsonalizazioaren bidean

Ikaslea erdigunean:

Autonomiaren garapenari esker, ikasleen talentuak bilatu eta indartzea dugu helburu.

Gure proiektuaren erdigunea ikaslea da eta ikasle bakoitzak bere onena ematea erronka. Ikasketa pertsonalizatua ezinbestekoa da hori bermatzeko eta gaur badakigu **hori lortzeko bidea ikasleen autonomia garatzea dela.**

Autonomiaz hitz egiten dugunean ez dugu ikasleek bakarrik lan egiteaz hitz egiten. Autonomia modu sakonago batean ulertzen dugu. Pertsona autonomo batek **erabakitzeko gaitasuna** du, modu koherentean jokatzeko du pentsatzen, esaten eta egiten duenarekin, arduraz onartzen ditu egindakoaren ondorioak eta ebaluatu egiten ditu etengabeko hobekuntza sustatuz.

Pertsona autonomoak hezteko, Jesuitak Donostian **autonomiaren garapena modu pautatu, sistematizatu eta planifikatuan lantzen dugu** abilezia desberdinen garapena sustatuz: plangintza eta antolakuntzari lotutako abileziak, ikasleen arteko harremanei, erabakitzeko gaitasunari lotutakoak edota autoezagutza eta autoebaluazioari lotutako abileziak.

Zergatik autonomia? Ikasleen autonomia garatzeak eragin zuzena duelako bai **ikasleen motibazioan eta baita hezitzaileek ikasgelan duten rolean** ere. Eta honi esker posible izango da pertsonalizazioan sakondu eta aurrera egitea.

Ikasketa ibilbide propioa:

Ikasteko modu berriak eskainiz, ikasketa esanguratsua sustatzea dugu helburu.

Etapaz etapa, gure proiektua eraldatu dugu ikasketa pertsonalizatua eta esanguratsua bermatzeko. Adinaren araberrako beharrei erantzunez, **kurrikuluma, espazioak, ordutegiak eta antolakuntza birpentsatu ditugu** ikasleen ikasketa esperientzia aberastu, euren erritmoak errespetatu, motibazioa areagotu eta ulermen gaitasuna bermatu eta indartzeko. Eraldaketa honen adibide dira:

Autonomiari lotutako abileziak garatzeko trena: helmuga bidezko lana, eguneko momentuen antolakuntza, agenda digitalaren erabilera, modu autogidatua lan egiteko erremintak, etab.

Ikasketa gidak eta metodologia berriak: edukien antolaketa 4 etapetan pertsonen ikasteko dugun ibilbide naturala aintzat hartuz, ikasleen ikasten ikasteko gaitasuna bermatzen duena (abiapuntua, ikerketa, trebeziaren garapena eta elkarbanatu fasea); metodologia berriak gaitasun desberdinak lantzeko (ABN metodologia matematikak lantzeko, proiektu bidezko lana, elkarbizitzak proiektua, robotika, etab.)

Prozesu eta aurrerapenen etengabeko ebaluazioa: ebaluaketa funtsezko elementu bilakatu da etengabeko hobekuntza sustatze aldera. Saio bakoitzeko, eguneko eta asteko helmugak zehaztu eta ebaluatzen dira, eta modu honetan, ikasleak euren ikasketa prozesuaz kontziente egiten dira.

Mundua eraldatzen duten pertsonak:

Gure proiektuaren bihotzari tinko eutsiz, ikasleak balioetan hezteko dugu helburu.

Gure proiektuaren bihotza 5C baloreetan gorpuzten da. P. Arrupe sj-ren ahotan, "besteei laguntzeko pertsonak" hezten ditugu, tradizioz eta bokazioz. Mundua eraldatuko duten pertsonen esentzia esnatzea dugu xede, mundu hobeago baten eraikuntzan eragile aktibo izan daitezen.

Ikasleek beren errealitateaz eta inguruan duten errealitateaz **kontzientzia** izan dezaten lan egiten dugu. **Gaitasunei** esker, errealitatea ulertzen dute eta honek ahalbidetzen die **konpromisoz** eta **enpatian** oinarriturik, hau da, bestearen lekuan jarriz, errealitatea eraldatzera. Hori guztia posible da **sormenari** esker: hezitzaileon sormena ikasleen beharrei erantzun berritzaileak emateko; eta ikasleen sormena, modu desberdin batean pentsatuz mundu hobeago, gizatiarrago, solidarioago eta jasangarriago bat sortzeko erronka lideratu eta posible egin dezaten.




Nola iritsi gara gure eredu propioa sortzera?

APP metodologia

Sortzen ari garen eraldaketaren emaitzak ikustea baina indar gehiago ematen duenik ez dago gure hoberena ematen jarraitzeko.


2010etik gaur arte, urrats ugari eman dira. Funtsezkoak izan dira hezitzaileak eraldatzea gure hezkuntza proiektua eraldatzeko, etorkizuneko Jesuitak Donostia proiektua amestea eta ametsekin ilusionatzea eta, batez ere, ikastetxean eraldaketa gauzatzeko **lan metodologia berri bat diseinatzea: APP metodologia.**

APP metodologiari esker, gaur errealitate da Jesuitak Donostia Eredua, espazio berriak hainbat etapetan, jangelako Mahi Mahi proiektua edota autonomia garatzeko egin dugun eta egiten ari garen lan sakona.



Eraldaketa, urratsez urrats:

Egungo Jesuitak Donostia ikastetxearen diseinua gako desberdinetan oinarritu da. Garapen guztiaren oinarrian gidari izan dira gure Paradigma Pedagogiko Ignaziotarra eta ikastetxe Jesuitek berezko dugun pertsonen garapen integrala .



Ikasketa ibilbide propioa, etapaz etapa.

Hauek dira, gure hezkuntza ereduaren baitan ikasgelan txertatu ditugun hainbat erreminta, estrategia edota proiektu esanguratsu.

Jesuitak Donostian eguna 3 momentutan antolatzen dugu: egunaren irekiera edo Momentu Biribila, Ekintzaren Garapena eta Egunaren Itxiera.

Eguneko 3 Momentuak



EGUNAREN IREKIERA

Lehen momentua, gogoeta eta barnekotasuna lantzeko unea izateaz gain, eguneko **helmuga zehaztu** eta **egunaren planifikazioa** egiteko unea da. Honen bidez autonomiaren garapenarekin lotutako abileziak lantzen ditugu.



EKINTZAREN GARAPENA

Ekintzaren garapenean, ikasleek egunean zehar gauzatu beharreko jarduerak egiten dituzte, etapaz etapa. Saio bakoitzaren aurretik eta ondoren helmugak zehazten dira eta saioaren amaieran helmugaren lorpen maila neurtzen dute ikasleek euren aurrerapenen kontzientzia lantzeko helburuarekin.

Ordutegi eta antolakuntza

Gure neurrira egindako ereduaren barruan, ordutegi eta antolakuntza birmoldatu ditugu.

Haur Hezkuntza:

- Txokoak: trebeziak garatzeko espazioak.
- Ikasgai espezifikoak: matematika, idazketa-irakurketa, etab.
- Asanblea
- Ulermen proiektuak.

Lehen Hezkuntzan:

- Bai ala bai: etorkizunean ikasleek garatu beharreko oinarrizko gaitasunak 5 tailerretan lantzeko dinamika
- Ulermen proiektuak
- Ikasgai espezifikoak
- Arts

Bigarren Hezkuntza:


- Ulermen proiektuak
- Ikasgai espezifikoak
- Tutoretza plana

Metodologia esanguratsuak eta proiektuak

ABN matematika

Era manipulatioan, esperimentalean eta ikaslearen errealitatean hurbilekoak diren egoerak eta materialak erabiliz matematika lantzea proposatzen duen metodologia da. ABN metodologiak, gainera, ikasketa pertsonalizatua sustatzen du, izan ere, izaera irekia du: emaitzara bide desberdinetatik heldu daiteke, ikasle bakoitzak duen arrazoi bidea errespetatuz.





Robotika eta programazioa

Lehen Hezkuntzako etapa osoan zehar eta kurikulum-aren barruan robotika eta programazioa lantzen dute ikasleek, kode hizkuntza. Robotika eta programazioaren lanketaren bidez, sormena, pentsamendu konputazionala eta kontzeptu matematiko ugari lantzen dituzte. Robotika eta programazioaren lanketak Bigarren Hezkuntzan jarraitzen du kurikulum-aren edukiaren barruan.

Elkarbizitzak

Pastoral proiektuaren baitan eta maila guztietan lantzen dira Elkarbizitzak. Zeharkako proiektua da. Elkarbizitzetan gai desberdinak jorratzen dira ikasleekin, helburua norberak bere burua aztertu, ikaskideen arteko harremanak landu eta fedean murgiltzea, pertsonaren heziketa integrala lantzea, alegia.

Hizkuntza proiektua

Hizkuntza proiektua ikastetxeko etapa osoan zehar ikasleen euskarazko, gaztelaniazko, ingelesezko eta frantsesezko gaitasun komunikatiboak sustatzeko apustua da. Ikasketa prozesu egokia bermatzeko, besteak

beste, irakasle natiboak daude klasean, beste herrialdeetako ikasleekin elkar-trukaketak gauzatzen ditugu eta hainbat ikasgai atzerriko hizkuntzetan ematen dira.

Bitartekaritza proiektua

Ikasleen arteko gatazkak konpontzeko garatu dugun prozesua da. Enpatia, emozioak eta ikasleen harremanak lantzea xede ditu ekimenak, ikasleak protagonista direla: eurek eskatu behar dute bitartekaritza prozesua abiatzea eta bitartekari lanetan aurretik horretarako prestatu diren ikasleak jarduten dira. Bitartekaritza proiektuan lantzen diren gaitasunekin ikasleek etorkizunean baliabideak izatea nahi da gatazken aurrean izan behar duten jarrera eta lanketa barneratzeko.

Boluntariotza proiektua

Batxilergoan ikasleek boluntariotza egiteko aukera dute. Ostiral arratsalde eta larunbat goizetan, ikasleek elkarte desberdinetan bolondres lanetan aritzen dira. Ikasleen %65eko parte-hartzearekin, boluntariotza proiektuak gorpuzten du ikasleengan eragin nahi dugun "Besteei laguntzeko pertsonak" izatearen esentzia.



EGUNAREN ITXIERA

Egunaren itxiera autoebaluazio eta hausnarketa unea da, ezinbesteko momentua ikaslearen kontzientzia landu eta bakoitza bere ikasketa prozesuaz jabe egin dadin.




Ekintza osagarriak

Arrupe Elkartea

Arrupe Elkartea ikastetxeko **aisialdi elkartea** da, Lehen Hezkuntzako 4. mailatik Batxilergora arte (Arrupe Haziak, Arrupe Sustraiak, Arrupe Enborra, Arrupe Sendoa).

Arrupe elkartea **ikasle ohien laguntzari esker** egiten da. Ikasle hauek, ikasle garaian Arrupen



jasotakoa eta bertan bizitako esperientziak begirale gisa eskertu eta itzultzea dute helburu. Arrupek kristau-baloreetan oinarritutako formazioaren alde apustu egiten du, eta horretarako, ekintza parte-hartzaileak, ikastetxe barruan eta kanpoan gauzatzen diren jarduerak eta esperientzia desberdinak eskaintzen ditu.

PARAeskolarrak

Gure hezkuntza proiektua aberastea helburu duen **jarduera eskaintza anitz eta boluntarioa** da. Etapa eta Arlo desberdinetan antolatuta, ekintza PARAeskolarrek ikasleen formazio integrala indartzen dute.

Jangelako MAHI MAHI proiektua

Mahi Mahi proiektuak gure **jangela eraldatu du** espazioa gune paregabe eta hezitzailea izan dadin. Jangelako proiektu honek elikadura osasungarria sustatzeaz gainera, esperientzia dibertigarri eta hezigarria eskaintzen du.

Janari propioa prestatzen dugu egunero ikastetxeko sukaldeetan eta jantoki desberdinak ditugu ikasleen adinaren beharretara egokitzeko.

Zerbitzuak



Eskola garraioa

2 urtetik aurrera 3 autobus ibilbide eskaintzen ditugu familien mugikortasun beharretara egokitzeko.



Bekak

Ohiko Eusko Jaurlaritzaren Beka eta Dirulaguntzez gain, ikastetxeko barne beka sistema bat dugu. Familia ugariak ere deskontuak dituzte.



Ordutegi zabalkundea

Haur eta Lehen Hezkuntzako ordutegi-luzapenari esker, malgutasuna eskaini eta zure beharretara egokitzen gara.

Haur Hezkuntzako ordutegia:

- Goizez: 07:30etik aurrera
- Arratsalde: 16:30-18:00
- Asteazkenetan: 15:50-18.00

Lehen Hezkuntzako ordutegia:

- Goizez: 07:30etik aurrera

Honez gain, 2 urteko ikasleentzat egutegi berezi eta zabalagoa dugu, irailtik uztaileara.



Jesuitak Donostia

Harrera eta Administrazioaren ordutegia: 8:00 - 18:00 (ordutegi jarraitua)

Calzada Vieja de Ategorrieta, 28
20013 - Donostia-San Sebastián
943 289 500